



AIARAKO UDALAK 2022ko URRIAREN 20an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
José Antonio Bartolomé Pesquera jn.
Itxaso Gorbeña Allende and.
Unai Campo Arenaza jn.
Karmele Población Martínez and.
Marian Mendiguren Mendibil and.
Koldo Mendioroz Goldaraz jn.
Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko urriaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa Bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos Andrea da idazkaria.

EZ DIRA BERTARATU

Susana Martín Benavides and.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko irailaren 22an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu du azaltzeko bilkuraren amaieran, galde-eskeen txandan, osoko bilkurak grabatzeko kontratuari buruz galdetu zuela, ea kontua nola zegoen, eta ez dago aktan jasota.

Idazkari andreak hitza hartu du eta adierazi du egia dela, esku-hartze hori ez dagoela jasota, eta aktari gehituko zaiola.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta, aipatutako zuzenketekin.



2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiara eta Okondoko Udalen arteko Lankidetzahitzarmena, Okondokoak diren pertsonak Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroan egoteak ekarritako gastuak ordaintzeko.

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko urriaren 11ko aldeko Irizpena.

Horri dagokionez ez da esku hartzerik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitatik 10ek).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Okondoko Udalarekin hitzarmena sinatzeko beharra, lankidetzatresna ezartzeko. Tresna horren helburua adineko pertsonen giza beharrei arreta ematea da, bereziki autonomia fisiko eta/edo sozialeko mugak dituzten pertsonen bizi-kalitatea artatzea, beti inguru naturalean eta gizarte eta familiakoan integratuz eta elkartuz.

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailaren parte-hartzea Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta mantenuan.

IKUSI DA.- Okondoko Udalak ez duela Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua, eta Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroan plaza hutsak daudela.

AINTZAT HARTU DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko urriaren 11ko aldeko Irizpena.

Osoko bilkurak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Aiarako eta Okondoko Udalen arteko Lankidetzahitzarmenaren eredia onestea, Okondokoak diren pertsonak Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroari ekarritako gastuak ordaintzekoa, hitzez hitz honako hau diona:

“AIARA ETA OKONDOKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, OKONDOKOAK DIREN PERTSONAK AIARAKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAN EGOTEAK EKARRITAKO GASTUAK ORDAINTZEKO.

Aiara, 2022ko urriaren 11n

Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko alkate-udalburua.

Bestetik, JUAN JOSE ESCUZA DEL CAMPO jauna, Okondoko Udaleko alkate-udalburua.



Bi aldeek, beren karguei zor zaizkien ahalmenei eta eskumenei jarraikiz, elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasuna, eta

ADIERAZTEN DUTE

I.- *Aiarako eta Okondoko Udalek adineko pertsonen giza beharrei arreta ematea beharrezkotzat jotzen dutela, bereziki autonomia fisiko eta/edo sozialeko mugak dituzten pertsonen bizi-kalitateari, beti inguru naturalean eta gizarte eta familiakoan integratuz eta elkartuz.*

II.- *Premia horiek asetzeko Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen sailaren parte-hartzea dago, Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta mantenurako.*

III.- *Hitzarmena gauzatzen den egunean Okondoko Udalak duela Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua, eta Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroan plaza hutsak daudela.*

IV.- *Sinatzen duten alde biak ados daudela Okondoko Udaleko erabiltzaileek Aiarako Udaleko EALZan arreta jasotzearekin, eta horretarako hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako hauetan xedatutakoaren arabera:*

KLAUSULAK

Lehenengoa.- *Dokumentu honen helburua da Aiara eta Okondoko Udalen arteko lankidetzatza-tresnak ezartzea, Okondoko biztanleak diren erabiltzaileek arreta jaso dezaten Aiarako Udalaren Eguneko Arretarako Landa Zentroan.*

Bigarrena.- *Aiarako Udalak Foru Erakundeak ezartzen dituen gastuak hartuko ditu, EALZ errekursoaren eskatzaile eta Okondoko udalerrikoak diren pertsonenak, baldin eta Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroak plaza guztiak beteta ez baditu.*

Hirugarrena.- *Okondoko Udalak, bere Udaleko Lehen Mailako Gizarte Arreta Zerbitzuaren bidez, aurkezten diren eskabideak jasoko ditu, eta dagokion administrazio-espeditentea egingo du.*

Eskabideen balioztapena, pertsonen onarpenerako lehentasunaren ordena zehaztea bezala, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen barnean ezarritako batzorde baten bidez egingo da, eta Gizartegintza Arloko gizarte-koordinatzaileak eta gizarte-langileak osatuko dute.

Pertsonen hautaketa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egingo du, udalerrian bizi diren pertsonak onartzea lehenetsiz. Hau da, ohiz kanpoko baldintzak egon ezean, puntuazio berdina dagoen kasuetan etxebizitza Aiarako udalerrian duten pertsonen sarbidea lehenetsi behar da. Erabiltzaileek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko diote. Prezio hori unean indarreko prezio publikoak arautzeko araudian xedatutakoaren arabera jarriko da, eta dagokion ebazpena emango da.

Laugarrena.- *Okondoko Udalak Aiarako Udalari plaza bakoitzaren balioa ordainduko dio, GOFEak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa kenduz, eta kalkulua egiteko zentroan dauden plazen kopurua aintzat hartuko da. Udal bakoitzaren aurrekontu-izendapena errazteko,*



Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du ekitaldi bakoitzaren amaieran horrek ekar dezakeen gastuaren gutxi gorabeherako aurrekontua emateko Okondoko Udalari, hartu beharreko kostu hurbildua ezagut dezan. Urte bakoitzaren amaieran Okondoko udalerrian erroldatuta dauden eta Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentrora joan diren pertsonen arretaren gastu erreala bidaliko da.

Bosgarrena.- *Hitzarmen honen, elkarrekiko erabaki honen, suntsiarazpenaren zergatia bertan jasotako klausulak haustea da, baita haren izaera espezifikotik eratorritako beste edozein klausula haustea.*

Azaldutako guztiarekin ados daudela frogatzeko, alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

*Gentza Alamillo Udaeta,
Aiarako Udaleko
alkate-udalburua.*

*Juan Jose Escuza Del Campo,
Okondoko Udaleko
alkate-udalburua”.*

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena gauzatzeko beharrezko dokumentuak sina ditzan.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren kopia Okondoko Udalari eta Arabako Foru Aldundiari igortzea, Udal honetako alkate-udalburuak behar bezala sinatua, ezagut dezaten eta beharrezko ondoreak izan ditzan.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Kuadrillari egindako kudeaketa-agindua, toki-erakundeetan 2022rako euskararen erabilera eta sustapen plan berriak baloratu eta sortzeko.

Udalbatzako kideei Euskara eta Hezkuntza Batzordearen 2022ko urriaren 11ko aldeko irizpenaren berri eman zaie.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du galdetzeko ea planaren balorazioa Kuadrillak egingo duen urtea amaitu baino lehen, eta ea gero 2023rako planifikatuko den, eta horrela bada, gaineratu du, ez duela ulertzen zergatik ez duen Udalak egiten.

Gentza Alamillo alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Aldundia dela laguntza teknikoa emango duena udal guztietan irizpide eta balorazio berdinak erabili eta balorazioak irizpide homogeneoekin egiteko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) gaineratu du udal bakoitzaren arabera izango dela, guztietan ez dagoelako egoera bera, eta uste du ezin dela alderatu udal guztietan.



Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10 kidek) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Kuadrillari toki-erakundeetan 2022rako euskararen erabilera eta sustapen plan berriak baloratu eta sortzeko kudeaketa eskuordetzeko beharra.

IKUSI DA.- Kudeaketa-aginduaren Hitzarmenaren erdua, toki-erakundeetan 2022rako euskararen erabilera eta sustapen plan berriak baloratu eta sortzekoa. Arabako Foru Aldundiak bidali du.

IKUSI DA.- Sektore Publikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11, 47. eta hurrengo artikulua.

IKUSI DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1986 Legearen 47.2 h) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kideen zenbaki legalaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar dela beste administrazio publikoei zereginak edo jarduerak eskuordetzeari buruzko erabakiak hartzeko.

AINZAT HARTU DA.- 2022ko urriaren 11ko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatza osoak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Aiarako Kuadrillari toki-erakundeetan 2022rako euskararen erabilera eta sustapen plan berriak baloratu eta sortzeko kudeaketa enkargatzea.

Bigarrena.- Aiarako Udalak Aiarako Kuadrillari egindako kudeaketa-aginduaren Hitzarmenaren erdua onestea, toki-erakundeetan 2022rako euskararen erabilera eta sustapen plan berriak baloratu eta sortzekoa. Testuak, hitzez hitz, honela dio:

“CONVENIO DE ENCOMIENDA DE GESTIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA - AIARA A LA CUADRILLA DE AYALA, PARA LA VALORACIÓN Y CREACIÓN DE NUEVOS PLANES DE USO Y FOMENTO DEL EUSKERA EN LAS ENTIDADES LOCALES PARA EL 2022

En Respaldiza, a -- de ----- de 2022.

REUNIDOS

De una parte, D. Gentza Alamillo Udaeta, en calidad de Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de Ayala-Aiara y habilitado para la firma del presente Convenio por acuerdo de Pleno de fecha 20 de octubre de 2022.



De otra parte, Dña. Encina Castresana Astarloa, en calidad de Presidenta de la Cuadrilla de Ayala y habilitada para la firma del presente Convenio por acuerdo de Junta de Cuadrilla, de fecha ----de ----- de 2022.

Las partes se reconocen mutua y recíprocamente la capacidad legal suficiente y necesaria para la celebración de este acto y, por consiguiente,

EXPONEN

Primero.- *De acuerdo con la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026, se destinan como recursos destinados al fomento del euskera y planificación en el ámbito municipal, por parte del Gobierno Vasco, un importe de 900.000 €, del que 145.440 € corresponden al Territorio Histórico de Álava.*

Segundo.- *Según el Acuerdo 14/2022, del Consejo de Gobierno Foral, de 25 de enero, que aprueba las participaciones iniciales provisionales en el Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales, así como los abonos correspondientes al primer trimestre de 2022 para cuadrillas y ayuntamientos y primer semestre 2022 para concejos (BOTHA nº 13 de 31 de enero de 2022), y la disposición adicional undécima, que modifica la Norma Foral 19/1997, de 30 de junio, reguladora del Fondo, al importe del tramo complementario, calculado según las reglas contenidas en el artículo 8, le será añadido el importe del fondo de fomento del euskera y planificación en el ámbito municipal (fondo condicionado exclusivamente al fomento del euskera), que deberá ser justificado debidamente por cada ayuntamiento, según lo establecido en la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026. Para el ejercicio 2022, el importe de este fondo de fomento del euskera se fija en la cantidad de 145.440,00.*

Tercero.- *Que La ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en su artículo 7 establece que “se atribuye a los municipios, como propia, la competencia para el fomento del uso del euskera y la planificación de su normalización en los servicios y actividades que correspondan a su esfera de atribuciones. En el ejercicio de esta competencia, cada municipio adoptará las medidas pertinentes, y aprobará y desarrollará los planes de normalización del uso del euskera necesarios, teniendo en cuenta los criterios de planificación y regulación del uso del euskera emanados de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y de la legislación vigente”. Por lo expuesto, el Ayuntamiento de Ayala – Aiara es titular de la competencia referida.*

Cuarto.- *La Norma Foral 63/1989, de 20 de noviembre, de Cuadrillas, en su artículo 1, constituye a la Cuadrilla como entidad territorial foral integrada por los Municipios al objeto de participar en los asuntos y promover y gestionar cuestiones de interés general que afecten a su ámbito territorial, lo que, unido con el artículo 28 de la citada Norma Foral, relativo a las competencias y potestades de las Cuadrillas, otorga a la Cuadrilla de Ayala la posibilidad de asumir competencias encomendadas por los Ayuntamientos.*

Quinto.- *El presente convenio se formaliza según lo previsto en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen del Sector Público, relativo a la Encomienda de Gestión.*



Conforme a lo dispuesto en este artículo, “la realización de actividades de carácter material o técnico de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho Público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de Derecho Público de la misma o de distinta Administración, siempre que entre sus competencias estén esas actividades, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.

Las encomiendas de gestión no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos regulados en la legislación de contratos del sector público. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en ésta”.

Sexto.- Por otro lado, la cooperación entre el Ayuntamiento de Ayala-Aiara y la Cuadrilla de Ayala mediante la fórmula de encomienda de gestión tiene su fundamento jurídico en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014. Concretamente, el artículo 31.1 de la citada ley abre la posibilidad de la cooperación entre entidades pertenecientes al sector público, sin que dicha cooperación pueda calificarse de contractual, empleando diversas modalidades entre las que se encuentra la cooperación horizontal, previa celebración de los correspondientes convenios, en las condiciones y los límites que establece el apartado 1 del artículo 6 de la misma ley.

CLÁUSULAS

Primera. Objeto.

El objeto de este convenio de encomienda de gestión del Ayuntamiento de Ayala-Aiara a favor de la Cuadrilla de Ayala es la realización de las actividades destinadas a la evaluación de los planes de uso del euskera de forma conjunta y coordinada, consensuando la metodología, la reflexión y el procedimiento a seguir en la medida de lo posible.

Este convenio de encomienda se produce por los motivos referidos en el artículo 11 de Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen del Sector Público, antes citado, esto es, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.

El encargo de las tareas incluidas no implicará, en ningún caso, cesión de la titularidad de la competencia, siendo responsabilidad del Ayuntamiento de Ayala-Aiara dictar cuantos actos o resoluciones sean necesarios para el cumplimiento del objeto del convenio de encomienda de gestión.

Segunda. Ámbito de aplicación subjetivo y territorial.

Quedan sujetas a la presente encomienda las entidades locales firmantes.

El ámbito de aplicación del presente convenio será la Cuadrilla de Ayala.

Tercera. Obligaciones de la Cuadrilla.



La Cuadrilla asume el compromiso de realizar las actividades que estime oportunas para el cumplimiento del objeto señalado en la cláusula primera.

Cuarta. Obligaciones del Ayuntamiento.

Corresponde al Ayuntamiento:

1. *Abonar a la Cuadrilla de Ayala la cantidad de 495,88 euros destinada al objeto de esta encomienda y que se determina en el Anexo II adjunto.*

2. *Propuestas de mejoras al desarrollo de los trabajos realizados en caso de evidenciar deficiencias en la implementación de las medidas presentadas o en caso de que los resultados parciales no sean los esperados.*

3. *Realizar las labores de coordinación necesarias con otros ayuntamientos que hayan realizado encomiendas a la cuadrilla sobre el mismo servicio, con el fin de ofrecer un servicio más eficiente y completo para la ciudadanía.*

Quinta. Presupuesto y financiación.

Las actividades destinadas al cumplimiento del objeto de esta encomienda comenzarán tras la firma del presente, una vez se haya realizado su publicación en el BOTHA, y se abonarán a la finalización de la elaboración de los planes descritos, y la posterior verificación y certificación de estos por la persona responsable del Ayuntamiento de Ayala-Aiara.

Los pagos se ingresarán mediante transferencia bancaria en la cuenta corriente que indique la Cuadrilla de Ayala, previa presentación, con cargo a la partida presupuestaria 335.226.060.

Sexta. Vigencia.

La presente encomienda entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava (BOTHA) y surtirá efectos hasta el 31 de diciembre de 2022.

Séptima. Publicidad.

El presente acuerdo se publicará en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava (BOTHA), de conformidad con lo previsto en el artículo 11.3 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Octava. Duración.

La encomienda de gestión se acuerda hasta el 31 de diciembre de 2022, sin perjuicio de la posibilidad de revocación por motivos de interés general o bien, previa denuncia de cualquiera de las partes con preaviso de quince días, por incumplimiento de las obligaciones respectivamente asumidas en el presente documento.

Novena. Naturaleza y jurisdicción competente.



El presente acuerdo de encomienda de gestión tiene naturaleza administrativa, siéndole de aplicación lo expresado en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Las cuestiones litigiosas o controversias que puedan surgir entre las partes en relación con la interpretación, modificación, efectos o resolución del presente acuerdo, serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo contencioso-administrativo, de conformidad con la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de dicha jurisdicción”.

AIARAKO UDALAK AIARAKO KUADRILLARI EGINDAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAREN HITZARMENA, TOKI- ERAKUNDEETAN 2022RAKO EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPEN PLAN BERRIAK BALORATU ETA SORTZEKO

Arespalditzan, 2022ko ----- aren, -- (e) (a)n.

BILDU DIRA

Alde batetik, Gentza Alamillo Udaeta Jn., Aiarako Udaleko alkate gisa, eta hitzarmen hau sinatzeko gaituta, 2022ko urrikoren 20ko Osoko Bilkuraren erabakiz.

Bestetik, Encina Castresana Astarloa And., Aiarako Kuadrillako presidente gisa, eta hitzarmen hau sinatzeko gaituta, Kuadrillako Batzarrak 2022ko -----aren -- (e) (a) n hartutako erabakiaren bidez.

Alderdiek elkarri aitortzen diote egintza hau egiteko legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa, eta, ondorioz, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- *Urriaren 7ko 4/2021 Legearen arabera (Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa), Eusko Jaurlaritzak 900.000 euro bideratuko ditu euskara sustatzeko eta udal-eremuan plangintza egiteko baliabide gisa. Zenbateko horretatik, 145.440 euro Arabako Lurralde Historikoari dagozkio.*

Bigarrena.- *Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 25eko 14/2022 Erabakiaren arabera (horren bidez, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean hasierako behin-behineko partaidetzak onartzen dira, bai eta kuadrilla eta udalentsat 2022ko lehen hiruhilekoari eta kontzejuentzat 2022ko lehen seihilekoari dagozkien ordainketak ere (2022ko urtarrilaren 31ko ALHAO, 13. zk.), eta hamaikagarren xedapen gehigarria, Funtsa arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua aldatzen duena 8. artikuluan jasotako arauen arabera kalkulaturako*



tarte osagarriaren zenbatekoari euskara sustatzeko eta udal-eremuko plangintzarako funtsaren zenbatekoa gehituko zaio (euskara sustatzeko soilik baldintzapeko funtsa), eta udal bakoitzak behar bezala justifikatu beharko du, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legean ezarritakoaren arabera. 2022ko ekitaldirako, euskara sustatzeko funts horren zenbatekoa 145.440,00 eurokoa izango da.

Hirugarrena.- *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak artikuluan ezartzen duenez, udalei esleitzen zaie, berezko eskumen gisa, euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena, beren eskumen-eremuari dagozkion zerbitzu eta jardueretan. Eskumen hori baliatuz, udalerrri bakoitzak behar diren neurriak hartuko ditu, eta euskararen erabilera normalizatzeko planak onartu eta garatuko ditu, Autonomia Erkidegoko erakunde komunek eta indarrean dagoen legeriak euskararen erabilera planifikatu eta arautzeko ezarritako irizpideak kontuan hartuta. Azaldutakoagatik guztiagatik, Aiarako Udala da aipatu eskumenaren titularra.*

Laugarrena.- *Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauak, 1. artikuluan, kuadrilla udalerriek osatutako foru-erakunde gisa eratzten du, gai horietan parte hartzeko eta bere lurralde-eremuari eragiten dioten interes orokorreko gaiak sustatu eta kudeatzeko. Horrek, aipatutako Foru Arauaren 28. artikuluaekin batera (kuadrillen eskumen eta ahalmenei buruzkoa), Aiarako Kuadrillari aukera ematen dio Udalek agindutako eskumenak bere gain hartzeko.*

Bosgarrena.- *Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubidearen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan kudeaketa-gomendioari buruz aurreikusitakoaren arabera formalizatuko da. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, “administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde batzuei agindu ahal izango zaizkie, baldin eta haien eskumenen artean jarduera horiek badaude, eraginkortasunari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago.*

Kudeaketa-gomendioen xedea ezingo da izan sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratuen berezko prestazioak ematea. Kasu horretan, haren izaera eta araubide juridikoa arau honetan aurreikusitakoaren arabera izango dira”.

Seigarrena.- *Bestalde, Aiarako Udalaren eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetzak, kudeaketa-gomendioaren formularen bitartez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean oinarritzen da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Zehazki, lege horren 31.1 artikulua aukera ematen du sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzarako, baina lankidetzak hori ezin da kontratuzkotzat jo, hainbat modalitate erabiliz, hala nola lankidetzak horizontala, dagozkion hitzarmenak egin ondoren, lege horren 6. artikulua 1. apartatuan ezarritako baldintzetan eta mugekin.*

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea.

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Aiarako Udalak euskararen erabilera planak batera eta modu koordinatuan ebaluatzeko jarduerak egitea da Aiarako Kuadrillaren alde kudeatzeko gomendioaren hitzarmen honen xedea, ahal den neurrian metodologia, hausnarketa eta jarraitu beharreko prozedura adostuz.

Gomendio-hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubidearen urriaren Ieko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aipatutako arrazoiengatik egiten da, hau da, eraginkortasun-arrazoiengatik edo hura betetzeko baliabide tekniko egokirik ez dagoelako.

Sartutako zereginak enkargatzeak ez dakar, inola ere, eskumenaren titulartasuna lagatzea, eta Aiarako Udalaren erantzukizuna izango da kudeaketa- gomendioaren hitzarmenaren xedea betetzeko beharrezkoak diren egintza edo ebazpen guztiak ematea.

Bigarrena. Aplikazio-eremu subjektiboa eta lurralde-eremua.

*Kudeaketa-gomendio honen mende daude toki-erakunde sinatzaileak.
Hitzarmen honen aplikazio-eremua Aiarako Kuadrilla izango da.*

Hirugarrena. Kuadrillaren betebeharrak.

Kuadrillak bere gain hartzen du lehen klausulan adierazitako xedea betetzeko egokitzat jotzen dituen jarduerak egiteko konpromisoa.

Laugarrena. Udalaren betebeharrak.

Udalari dagokio:

- 1. Aiarako Kuadrillari mandatu honen xederako bideratutako 495,88 euroko zenbatekoa ordaintzea. Zenbateko hori erantsitako II. eranskinean zehazten da.*
- 2. Egindako lanen garapena hobetzeko proposamenak, baldin eta aurkeztutako neurriak ezartzean akatsak daudela ikusten bada edo emaitza partzialak espero zirenak ez badira.*
- 3. Zerbitzu bera kuadrillari agindu dioten beste udalekin koordinazio-lanak egitea, herritarrei zerbitzu eraginkorragoa eta osoagoa emateko*



Bosgarrena. Aurrekontua eta finantzaketa.

Gomendio honen xedea betetzera bideratutako jarduerak hitzarmen hau sinatu ondoren hasiko dira, ALHAOn argitaratu ondoren, eta deskribatutako planak egiten eta, ondoren, Aiarako Udaleko arduradunak egiaztatzen eta egiaztatzen dituenean ordainduko dira.

Ordainketak Aiarako Kuadrillak adierazitako kontu korrontean sartuko dira banku-transferentzia bidez, aldez aurretik aurkeztuta, 335.226.060 aurrekontu-partidaren kargura.

Seigarrena. Indarraldia.

Gomendio hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak.

Zazpigarrena. Publizitatea.

Akordio hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratuko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zortzigarrena. Iraupena.

Kudeaketa-gomendia 2022ko abenduaren 31ra arte hitzartzen da, hargatik eragotzi gabe errebokatzeko aukera interes orokorreko arrazoiengatik edo, hamabost egun lehenago alderdietako edozeinek salatuta, dokumentu honetan hurrenez hurren hartutako betebeharrak ez betetzeagatik

Bederatzigarrena. Izaera eta jurisdikzio eskuduna.

Kudeaketa-gomendioaren akordio honek izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan adierazitakoa aplikatuko zaio.

Akordio honen interpretazioaren, aldatetaren, ondorioen edo suntsiarazpenaren inguruan alderdien artean sor daitezkeen auziak eta eztabaidak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorritik”.

Hirugarrena.- Alkate-Udalburuari Hitzarmena gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko eskumena ematea.

Laugarrena.- Erabakiaren egiaztagiria Aiarako Kuadrillari bidaltzea, kudeaketa-gomendia onetsi dezan, hitzarmena sinatu baino lehen egin behar baita. Behin sinatuta, Arabako Foru Aldundiari kontu ematea, jakin dezan eta ondoreak izan ditzan.



4.- Aldatzea, bidezkoa bada, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko obra prozedura ireki bidez adjudikatzea arautzen duen baldintza ekonomiko-administratiboen plegua.

Ondoren, Udalbatzari kontu eman zaio Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikulua bidez, alkate udalburuak, behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiengatik, gai-zerrendan sar ditzakeela alde aurretik dagokion informazio batzordean jakinarazi ez dituen gaiak. Hala ere, kasu horretan, ezin izango da gaiari buruzko erabakirik hartu, Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berresten ez badu.

Idazkari andreak hartu du hitza adierazteko pleguetan akats bat ikusi duela; izan ere, zenbatekoa gorantz aldatu zenean ez zen ohartu 500.000 euroko atalasea gainditu zuela eta enpresen sailkapena beharrezkoa da, beraz, pleguak aldatu behar dira hori kontuan izateko eta eskaintzak aurkezteko beste epe bat emateko.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da iruzkinik egin eta bozkatu da, eta aho batez onetsi da Osoko Bilkura honen gai-zerrendan sartzea.

Gaiari buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman da.

Gaiaren gaineko iruzkinik egin ez denez, gaia bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2022ko irailaren 22ko Osoko Bilkurako akordio bidez prozedura ireki bidezko adjudikazioa arautzen duten baldintza ekonomiko administratiboen plegua onartu zela, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko obrarako, eta obra hori kontratatzekeo espedientea hasi zen.

AINTZAT HARTU DA.- Proposamenak aurkezteko epean ikusi da aipatutako pleguan akats bat dagoela, izan ere, obraren prezioa hazi denez, 500.000 € gainditu ditu eta SPKLko 77. artikulua arabera, lizitatzailleek ziurtatu egin beharko dute Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera zehaztutako talde, azpitalde eta kategoriatan sailkatuta daudela.

AINTZAT HARTU DA.- Aipatutako kontrataziorako eskaintzak aurkezteko lizitatzailleak honako talde, azpitalde eta kategoriatan sailkatuta egon behar dira:



C TALDEA: ERAIKINAK

4. AZPITALDEA: IGELTSEROTZA, EMOKADURAK ETA ESTALDURAK

6. AZPITALDEA: ZOLADURAK, ZOLAK ETA AZULEJU-ESTALDURAK

7. AZPITALDEA: ISOLAMENDUAK ETA IRAGAZGAIZTEAK

3. KATEGORIA: Urtebeteko edo gutxiagoko iraupena eta 360.000 euro baino gehiagoko eta 840.000 euro edo gutxiagoko balio zenbatetsia (D kategoria, 1098/2001 ED-ren parekidea).

Horregatik guztiagatik, plegua aldatu behar da aipatutako sailkapen-eskakizun hori sartzeko.

AINTAINTZAT HARTU DA.- Eusko Jaurlaritzako Kontratazio plataformako iragarki bidez, aipatutako lizitazioa bertan behera utzi da esandako zentzuan plegua aldatu arte, eta ondorioz, lizitazioa hasi behar da berriro, proposamenak aurkezteko epe osoa emanaz berriro, balizko lizitatzailerei ez kaltetzeko.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzako Osoko Bilkurak honako **ERABAKI** hau har dezala proposatzen da:

Lehenengoa.- 2022ko irailaren 22ko Osoko Bilkurako akordio bidez Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina egokitzeko obrarako prozedura ireki bidezko adjudikazioa arautzen duten baldintza ekonomiko administratiboen plegua aldatzea.

Bigarrena.- Berriro ere HOGEITA SEI EGUN NATURALEKO epe berria ematea, proposamenak aurkezteko.

Hirugarrena.- Eusko Jaurlaritzako Kontratatzailearen plataformako kontratatzailearen profilean iragarkia argitaratzea, aldatutako pleguekin eta eskaintzak aurkezteko epe berriarekin.

5.- Alkatetzaren dekretuen kontu ematea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2022/589 eta 2022/657 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA- 2022/589 Kili-Kili elkarte. Kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntza ematea, 2022 urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/590 Aiara Bolatoki Taldea Kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntza ematea, 2022 urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/591 Emakumeen Taldea Ama Birjiña Zuria. Kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntza ematea, 2022 urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/592.- Mastertent Ibérica SL- Karpa tolesgarriak hornitzeko kontratuaren adjudikazioa

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/593.- A.A.A.- Aparkatzeko txartela ordeztzea, narriatu delako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/594.- I.U.P.- Udalaren obra-lizentzia ematea, Luiandoko etxebizitzako aurrealdearen beheko zatian baldosa jarri eta gainerako aurrealdea

I.F.K. C.I.F. P0101100F



pintatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/595.- E.E.N.- Murgako Garden Erenan instalazio fotovoltaikorako obra-lizentziaren eskabidea izapidetzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/596.- Fundación Alday. EALZren kudeaketen gastuak ordaintzea, 2022ko uztailea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/597.- Etxaurren Ikastolako GEa. 2022ko ekaineko aparteko ordainsarien nominak ordaintzea, talde psikopedagogikoa eta bi urteko gelako laguntzailea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/598.- Akats materiala zuzentzea, 22/07/29ko 2022/551 zenbakidun ADn transkripzioa gaizki zegoelako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/599.- Zuhatzako Administrazio Batzordea.- Zuhatzan hauren parkerako eremua egokitzeko obretako hondarren kudeaketa-fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/600 - Gestión Deportiva Loiri SL- Ikastaro eta lantegi artistiko, kultural eta kirolerako emateko zerbitzu-kontratuaren luzapenaren lehen onespena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/601 - Isidoro Beraza Viguri.- Aiarako Trikitixa Eskolako zerbitzuaren kontratuko luzapenaren lehen onarpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/602.- J.S.S.- Udalaren obra-lizentzia ematea Luiaondon dagoen finka batean hesia ordezkatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/603. JA.A.C. - Udalaren obra-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxebizitzan bainugelak zaharberritzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/604.- JM.J.A. - Udalaren obra-lizentzia ematea, Olabazarreko etxebizitzan kanpoko harotz-lanak ordezkatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/605.- Alkateak Kreditua gaitzeko espedientea onartzea, 5/2022 zk.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/606.- Alkateak Kreditua gaitzeko espedientea onartzea, 7/2022 zk.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/607.- M.G.O eta V.J.A.—Hirigintzako zaharberritze espedientea amaitzea Menagaraiko partzelan egitura eraikitzeagatik eta emandako obra-lizentziaren iraungitze-espedientea hasia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/608.- Diteco Ingenieria SL - Done Bikendi auzoa eta Arespalditzako hirigunearen artean oinezkoentzako lotura egiteko proiektua idazteko zerbitzuaren kontratu txikia esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/609.- Firms Alaveses SA- Ibaguen auzoko kirol-pista zolatzeko obraren kontratu txikia esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/610.- Firms Alaveses SA- Ibaguen auzoko kirol-pista zolatzeko prestakuntza obraren kontratu txikia esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/611.- Erbiko Administrazio Batzordea.- Udalaren obra-lizentzia ematea, Erbiko ur-banaketa sarea berritzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/612.- J.B.Z.- Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakiko eraikina bota ondorengo obra-hondarren kudeaketa zuzenaren bermean jarritako fidantza itzultzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/613. D.S.D. – Udalaren obra-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxebizitzan bainugela zaharberritzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/614.- Aiarako 4. poligonoko 637 partzelaren hirigintza-egoerari buruzko 2022/09/19ko hirigintza-txostena onartzea, Amurrioko Jabetzako Erregistrora bidaltzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/615.- Menoioko Administrazio Batzordea.- Menoioko hirigunean zerbitzuak berritu eta zolatzeko obretako hondarren kudeaketa zuzena bermatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/616 Etxaurren Ikastolako GEa. Kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntza ematea, 2022 urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/617.- Aiaraldea Kooperatiba Elkarte.- Aiarako Gaztelekua 2022 kudeatzeko zerbitzuaren kontratu txikia esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/618.- M.E.U.- Izoriako etxebizitzan eguzki-plakentzako pergola jartzeko obrako hondarren kudeaketarako fidantza eskatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/619.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.- Obra-lizentzia ematea, Luiandon frontoiaren lurra konpondu eta pintatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/620.- JA.G.U.- Beotegin finka banatzeko lizentzia iraungi izanaren aitortpen-espeditentea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/621.- Aiarako Kultura Elkarte. Obra-lizentzia ematea Arespaldizako eraikinean hormetan zuraren ordez adreiluak jartzeko eta baranda ipintzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/622.- JA.C.U.- Agiriak eskatzea, Zuhatzan eraikinaren estalkia aldatzeko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/623.- Salmantóneko Administrazio Batzordea.- Salmantónetik Menoiarako bidean sasiak ebaki eta egokitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/624.- Llantenoako Administrazio Batzordea.- Agiri gehigarriak eskatuz eta zuhurtziazko neurriak ezartzea adostuz Llantenon Herrerías ibaiaren gaineko zubia konpontzeko lanetan.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/625.- Onartzea 2022an Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza-ekitaldietara joateagatiko laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/626.- Elkarkidetza Pentsioak. Faktura-likidazioa, 2022ko iraila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/627.- Fundación Alday. Eguneko Arretarako Landa Zentroaren

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/628.- Peregaña gizarte eta kultura elkarte. Kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntza ematea, 2022 urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/629.- JA. G.U.- Beotegin finka banatzeko lizentzia iraungi izana aitortzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/630.- M.E.U.- Izoriako etxebizitzan eguzki-plakentzako pergola jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/631.- Lexartzuko Administrazio Batzordea.- Lexartzuko obrako hondarren kudeaketa zuzenaren berme gisa aurkeztutako fidantza itzultzea



eta obra-espeditentea amaitzea, saneamendu-sarea eta araztegi-sistema berritzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/632.- Aparkatzeko txartela ematea, iraungi delako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/633.- Ayala-Aiarako HAPOko zenbait sektoreren uholde-arriskuaren azterketa egiteko zerbitzu-kontratua esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/634.- Jarduera Ekonomikoen Zergako zergapekoen errolda onartzea, 2022 urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/635. – I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES SAU- Artzeniega-Menagarai lineen loturan aireko-lurpeko linea berri bat eta lurpeko transformazio-zentroa instalatzeko obrarako hondarren kudeaketaren fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/636.- FJ.A.G. EIOZen ordaindutakoa itzultzea, obrak egin ez direlako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/637.- F.A.O.- Informazio publikora sartzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/638.- Alkatearen eta langile funtzionarioen nominen lansari likidoa onartzea, 2022ko iraila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/639.- Zinegotzientzako ekarpen ekonomikoa onartzea, 2022ko iraila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/640.- I.L.O.- Informazio publikora sartzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/641.- Ekarpen ekonomikoa udalerriko alderdi politikoei, 2022ko iraila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/642.- T.E.O.- Udalaren obra-lizentzia ematea, Zuhatzako etxebizitzari atxikitako bi etxoletako estalkian teila aldatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/643.- MA.H.L. – Udalaren obra-lizentzia ematea, Izorian etxebizitzaren kanpoko harotz-lanak ordezkatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/644.- Onyx-Goen SLU- Udaleko eraikin publikoetan instalazio fotovoltaikeen proiektuak idazteko kontratu txikia adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/645.- Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuko enpresen errotulazioan euskara sartzeko dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea, 2022 urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/646.- JM.G.G.- Desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuak aparkatzeko txartela.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/647.- FJ.A.G.- Luiandoko La Torreko kaleko 13. Zenbakiko eraikina eraisteko obra hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/648.- J.G.M.- Luiadon etxebizitza bat lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/649.- Alkateak Kreditua gaitzeko espeditentea onartzea, 6/2022 zk.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/650.- M.C.B.G.- Aparkatzeko txartela ematea, iraungi delako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/651.- J.L.B.G.- Aparkatzeko txartela ematea, narriatu delako.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/652.- Eracustic SL - Garobel SL- Murgako 4. poligonoko 197. partzelako 3. eraikina lizentziarik gabe eraikitzeagatik lehengoratzte urbanistikoko espedientea ebaztea.

ALKATZETAKO DEKRETUA - 2022/653.- KIROLDEGIETAKO KUOTEN ORDAINKETAN EMANDAKO ETA UKATUTAKO DIRULAGUNTZAK EBAZTEA, 2022

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/654. - R.F.C. Arespalditzan frontoia eraiki eta kirol-pista ixteko eraikuntzako oinarritzko proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/655.- J.L.T.O.- Salmantónen etxebizitzaren teilatuan instalazio fotovoltaikorako udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/656.- Gizarte Segurantzako kotizazioak, 2022ko abuztua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/657.- K.P.M.- Udalaren obra-lizentzia ematea, Zuhatzan aparkalekua zolatzeko.

Inolako iruzkinik ez dagoenez, udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6.- Galde-eskeak.

Zinegotziei galde-eskeen txandarako hitza eman aurretik, Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) hitza hartu du informazioa emateko:

- Abenduan hasiko dira Enpleguko Eskualdeko Planean sartu direnak lanean, beraz, azaroan argitaratuko da eskaintza Lanbiden, baldintzak betetzen dituzten hautagaiei harrera egiteko eta zereginak beteko dituzten pertsonak hautatzeko.
- Arespalditzako pista ixteko proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua adjudikatu da eta Ikastolarako eta pistarako eguzki plaken proiektua idaztekoa eta Guziesko auzoa Done Bikendirekin lotzeko proiektua idaztekoa.
- Arespalditzako haurren parkeko obra lizitatzeko aldia ireki da, eta Luiandoko erabilera anitzeko eraikineko obrarena ere bai.
- Hiru enpresei eskatu zaie Aiarako mugikortasunaren diagnostikoa egiteko aurrekontua aurkez dezatela, Aiaran garraioaren errealitatea ikusteko, eta bigarren fasean ikusteko herritarrak nola mugitzen diren eta horrela, mugikortasuna hobetzeko lan egiteko.

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotziak hartu du hitza galdetzeko noiz aurkeztuko den Administrazio Batzordeetan AOT plaza duen pertsona.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak hartu du hitza erantzuteko, laster izango dela, hasten ari baita; datorren hilean aurkeztuko da. Zerbitzu hori nola kudeatu hitz egin beharra dagoela esan du, ez da landu.



Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotziak esan du bi hilabete daramatzala udalean administrazio orokorreko teknikariak eta batzordeekin lan hori bizkortzeko eskatu du.

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotziak hartu du hitza galdetzeko nola egingo den sasi-garbiketaren bigarren pasada.

Jose Antonio Bartolomé Pesquera (EAJ-PNV) zinegotziak hartu du hitza eta erantzun dio aurtengo urtea oso berezia izan dela klimaren ondorioz eta belarra oraindik ez dela nahikoa hazi, lehenengo mozketa berandu egin zen eta orain makinak sartzeak ez du zentzurik, aste batzuk itxarongo dira hazten den ikusteko.

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotziak hartu du hitza galdetzeko zer egingo den altuerako sasi-garbiketaren soberako materialarekin.

José Antonio Bartolomé Pesquera (EAJ-PNV) zinegotziak hartu du hitza erantzuteko txikitu egingo dituztela erabaki dela eta konposta egiteko hedatuko dela, jabeek edo batzordeek berariaz zerbaiterako nahi ez badute. Soberakina poligonoko partzelan utziko da. Gehitu du batzorde guztietan begiratu dela, altuerako zer mozketa egin behar den ikusteko.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH BILDU) zinegotziak hartu du hitza adierazteko gaur egun hondar horiek txikitu eta abeltzainei eskaintzen zaizkiela, ganaduaren azpietarako.

- Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotziak hartu du hitza eta galdetu du Garabillari buruzko informaziorik jaso al den.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak esan du eskutitza igorri zaiela, baina Eusko Jaurlaritzatik ez dutela erantzun oraindik.

- Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotziak hartu du hitza Aldundiaren 3939 zenbakidun sarreraz galdetzeko, aurrekontu parte hartzaileei buruzkoa, izan ere Udalak sare sozialen bidez eman du horren berri eta udaletxean informazioa utzi dute eta beraiek ez dute ezer jakin. Horren berri eman zitekeen.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak erantzun du Aldundiak informazioa bidali duela Udaletik herritarrak informatzeko, ez zen zinegotzientzako informazioa, baizik eta hedatzekoa, liburuxketan jartzekoa, etab.

- Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotziak hartu du hitza 3944 zenbakidun sarreraz galdetzeko, Osakidetzako baldintza gehigarri bat aipatzen da eta zer den galdetu du.

Idazkariak hartu du hitza eta azaldu du udalerrian dagoen Osasun Txartel Indibidualen kopuruaren arabera Osakidetzak urtero eranskin bat egiten diola gure hitzarmenari, OTI kopuruaren arabera ordaintzen baitigute. Agiria urtero igortzen dute, alkatetzak sinatzeko.



- Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotziak hartu du hitza 4057 sarreraz galdetzeko, Yogako klaseei buruzkoa, ez zegoela tokirik esan zen eta arazoa konpondu ote den jakin nahi du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak erantzun du ikastaroak eskaini zirenean yogako bat osatu zela, 6etatik 7etarakoa, baina 7etatik 8etarakoa ez zen osatu lau pertsonak bakarrik eman zutelako izena, ondorioz, 6etatik 7etarakoei galdetu zitzaien nahi al zuten 7etara pasa, baina ezin izan zen, inork ez baitzuen nahi izan. Ikastaroa hasita, enpresak jakinarazi zuen 6etatik 7etarako klasera apuntatutako guztientzako tokirik ez zegoela, beraz, taldea banatu egin behar izan zen eta horietako batzuk 7etatik 8etara taldera igaro eta taldea sortzeko modua egon zen.

- Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotziak hartu du hitza 4063 sarreraz galdetzeko, ez baitu ongi ulertzen euskaraz artatzeari buruzko idatzia.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak erantzun du pertsona batek deitu zuela eta HHZ artatzen duen bi funtzionarioetako inor ez zegoenez, deia beste funtzionario baten telefonora pasa zen automatikoki eta honek duen adinagatik hizkuntza eskakizuna izateko betebeharririk ez duenez, ezin izan zuen euskaraz artatu, horregatik esan zitzaion euskaraz artatzea nahi bazuen minutu batzuetara berriro deitzeko HHZko pertsonak euskaraz arta zezan. Horregatik egin zuen kexaren idatzia.

- Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotziak otsoari buruz Aldundiarekin izandako bilerako ondorioez galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak erantzun du datorren batzordean emango dela bilera hartan hitz egindakoaren berri, gainera, azaroaren hasieran beste bat egongo da.

- Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotziak hartu du hitza galdetzeko konpondu al den artilea uzteko tokiari buruzko arazoa.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak erantzun du arazo historikoa dela. Duela 3 edo 4 urte udala eta LGE koordinatuta aritu ziren ustiattegietan bilketa masiboa egiteko, batzuetan artilea agertzen baitzen edukiontzietan. Gainera, proiektu pilotu bat jarri zen abian artilea simaurrarekin nahasteko, deskonposa zedin eta horretan ari dira orain. Gogoan izan behar da artilea hondar bat dela, fitosanitario askok artilean amaitzen baitute eta hondar gisa tratatu behar da. Beste gauza batzuetarako erabiltzen saiatu da, baina azkenean ez da proiekturik garatu.

Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamabost minutu direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko urriaren hogeian.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

O.E.
ALKATEA-UDALBURUA,

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.